

2020KO URTARRILAREN 23AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2020eko urtarrilaren 23an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EHBildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- MIREN GARBIÑE OLEALDEKOA ORBE andrea(EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- IRATI ABIO MURUAGA andrea(EH Bildu)
- MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN andrea (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- GUILLERMO MARTÍN MARTÍN jauna (EAJ-PNV)
- GORKA URIARTE URAZURRUTIA jauna (EAJ-PNV)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI)
- JAVIER MIGUEL ALVARADO jauna (BAKIOBAI)

Helburua: Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikeraemoteko legezko “quorum”adagoala egiaztatu orduko, alkate andrearen lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2019KO ZEMENDIAREN 28AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdujake zinegotziei 2019ko zemendiaren 28an egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

2.-2019KO ABENDUAREN 19AN EGINDAKO APARTEKO BILKURAREN AKTA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdujake zinegotziei 2020ko abenduaren 19an egindako aparteko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikerea emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

399/2019.- Putxerak egiteko udal baimena.

400/2019.- Udal erroldan baja emotea.

401/2019.- Udal erroldan baja emotea.

402/2019.- 2019ko haize boladak kaltetu dauan Frontoiko estalpeko elementuak kendu eta sendotzeko lanak “Montajes Hrnos García, S.L.” enpresari esleitzea.

403/2019.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

404/2019.- Kredituak gaitzeko ebazpena.

405/2019.- Nominak ordaintzeko ebazpena.

406/2019.- Zergen itzulketa kopuruak.

407/2019.- Udal erroldan baja emotea.

408/2019.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

409/2019.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

410/2019.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

411/2019.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

412/2019.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

413/2019.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

414/2019.- Erreklamazino bat baiesteko ebazpena.

415/2019.- Fakturak atzera botatea.

416/2019.- Fakturak atzera botatea.

417/2019.- Kredituak aldarazoteko ebazpena.

418/2019.- Megafonia lagatzeko baimena.

419/2019.- Kontratu txiki bat esleitzea.

420/2019.- Kontratu txiki bat esleitzea.

421/2019.- Gaueka Herri Kirol Klubari baimena emotea estatutuetan Bakioko Udalaren Kultur Etxeko lokalak klubaren egoitza sozial modura aitatzeko.

422/2019.- Legezketasun urbanistikoa babesteko prozedurari ekitea.

423/2019.- Zergen itzulketa kopuruak.

424/2019.- Motor Show egiteko udal baimena.

425/2019.- Eskola agenda diruz laguntzeko ebazpena.

426/2019.- Megafonia lagatzeko baimena.

427/2019.- Hiru behargin kontratatzea.

428/2019.- Udal lantaldeko behargin baten kontratazinoa.

429/2019.- Udal lantaldeko behargin baten kontratazinoa.

430/2019.- Administrari laguntzaile baten kontratazinoa.

431/2019.- Obligazioen ordainketa onartzea.

432/2019.- Obligazioen ordainketa onartzea.

433/2019.- Obligazioen ordainketa onartzea.

434/2019.- Udaltzain bateri bitarteko funtzionario modura baja emoteko ebazpena.

434bis/2019.- Nominak ordaintzeko ebazpena.

435/2019.- Udaltzain bateri bitarteko funtzionario modura baja emoteko ebazpena.

436/2019.- Obligazioen ordainketa onartzea..

- 437/2019.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 438/2019.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 439/2019.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 440/2019.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 441/2019.- San Silbestre egiteko udal baimena.
- 442/2019.- 5&5 egiteko udal baimena.
- 443/2019.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 444/2019.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 445/2019.- Fakturak ontzat emoteko ebazpena.
- 446/2019.- Fakturak ontzat emoteko ebazpena.
- 447/2019.- Lokal baten kontratua luzatzeko ebazpena.
- 448/2019.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

Alkate andreak, dekretu honeen barri emon dau:

402/2019: 2019ko haize boladak kaltetu dauan Frontoiko estalpeko elementuak kendu eta sendotzeko lanak “*Montajes Hrnos García, S.L.*” enpresari esleitzea erebagi da, prezioa 13.847,53 euro izanik.

419/2020: Bakion jarduera fisikoa aktibatzeko eta sustatzeko, edadeko pertsonen artean batez be, Argibide. Asistencia Social y Deportiva, S.L. proiektua onartu da eta, beraz, proiektu garatzeko agindua emon jako, kostua 11.467,00 € gehi BEZ izanik.

420/2019: Gaztelugatxeko San Juanera joateko mugikortasuna hobetzeko proposamena onartzen da, “*Improvisos, Creatividad y Territorio S.L.L.*” aurkeztutakoa, aurrekontua 16.456,00 euro (BEZa barruan dala) izanik.

404/2019: 2019ko udal aurrekontuaren 11. aldarazpena, kreditua gaitzea modalidadean:

Sarrerren egoera

Kredituen gaikuntza finantzatzen duten sarrerak honako hauek dira:

Aurrekontu partida	KREDITU Gaitzea FINANTZATZEKO PROPOSAMENA	Kredituak	Gaikuntzako finantziariak
		Gaur egun	
40004	Administración general del estado, pacto viol	0,00 €	1.164,20 €
41006	Subvencion E.J, Gazte ekipamenduak	0,00 €	5.579,00 €
41012	Transf. corrientes bibliotecas fondos bibliote	0,00 €	1.199,00 €
41015	Sub ihobe aste klimatikoa	0,00 €	1.443,02 €
41016	Gobierno vasco, mugiment	0,00 €	5.377,73 €
41701	Uemako dirulaguntza arauak itzultzearren	0,00 €	2.178,00 €
42007	Trasf. DFB , actividades culturales menos d	0,00 €	5.707,60 €
42008	Trasf. DFB , actividades culturales euskera	0,00 €	3.435,36 €
710.01	Sub. gob vasco Udalaguntza 2019 patio	0,00 €	72.022,32 €
720.01	Sub. infraes afectas 2019 acondicion san peli	0,00 €	33.827,55 €
			131.933,78 €

Gastuen egoera

Proposatutako kreditu gaikuntzek honako aurrekontu partidei eragiten diete:

	KREDITU Gaitzea FINANTZATZEKO PROPOSAMENA			Guztira
		Aldarazpena aurreko egoera	Aldarazpena	
330.226.06.1	Actividades kultur	85.000,00 €	26.083,91 €	111.083,91 €
1532.601.00.	Bidegorriaren jarraipena	80.000,00 €	33.827,55 €	113.827,55 €
320.622.01.0	Eskolako patioa hobetzeko lanak	209.258,60 €	72.022,32 €	281.280,92 €
			131.933,78 €	

417/2019: 2019ko udal aurrekontuaren 12. aldarazpena, kreditu grehigarriak modalidadean:

GASTUAK EGITEKO PROPOSAMENA ETA, ONDORIOZ, KREDITUEN ALDARAZPENA

Zerrendatzen diren gastuak aurrera eramateko premia larria dago; izan ere, gastuen ordainketa ezin luza daiteke, zerbitzuak emateko erritmoa eteteak gaitz-kalteak sor litzakeelako edo kudeaketa maila jaits litekeelako. Beraz, horiek finantzatzeko behar adina aurrekontu kreditu ez dagoenez gero, honako proposamen hau egin da indarreko aurrekontu egiturari doitu.

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak	
		Aldarazpenak	Behin betikoak
132.624.00.01	Kotxea	40.000,00 €	40.000,00 €
1621.629.00.0	Kontenedoreak	13.000,00 €	13.000,00 €
151.643.00.01	Gaztelugatxeko Mugikortasun plana	17.000,00 €	17.000,00 €
	GUZTIRA	70.000,00 €	70.000,00 €

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Finantzaria
870.01	Remenante para gastos generales 2018	70.000,00 €
		70.000,00 €

427/2019: Lanbide erakundearen bidez udaletxea aritzeko administrari bat eta udal lantaldean aritzeko behargin bi hiru hilabeterako kontratatze azterketen egitaraua eta merituak zehazten dira, bai eta epaimahaia be izendatzen da.

4.- 2019KO EKITALDIARI JAGOKON UDAL AURREKONTUAREN BETEARAZPEN EGOEREAREN BARRI EMON, URRIAREN 31RA ARTEKOARI JAGOKONEZ.

Aitatutako gaia dala-eta zinegotziek horrerri buruzko agiria daukien ezkerro, horren barri emon da, beste barik. Laburpena erantsiko jako akta honeri.

5.- HIRUGARREN HIRUHILEKOARI JAGOKOZAN BATEZ BESTEKO ORDAINKETA EPEAREN ETA 2019KO 36. BERANKORTASUN TXOSTENAREN BARRI EMON.

5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua araber, diruzainek edo kontu-hartzaileek hiru hilabetetik hiru hilabetera txostena egin behar dabe, onartutako fakturen ordainketen betearazpenari buruzko egoera zein dan azalduz, eta horren barri udalbatzari emon.

Hori dala eta, Idazkari-kontuhartzaileak 2019ko abenduaren 13an txostena egin dau udalbatzari jakinarazoteko. Izan be, txosten horren eguna erreferentzia modura hartuta 2019ko hirugarren hiruhilekoari jagokon berankortasunaren datuak honeexek dira, beti be bertan azaltzen danaren araber:

HIRUHILEKOAN EGINDAKO ORDAINKETAK	
<i>Ordaindu diranak legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaindu diranak legezko epe barruan</i>
673.404,88 €	346 ordainketa kopuru

<i>Ordaindu diranak legezko epetik kanpora</i>	<i>Ordaindu diranak legezko epe kanpora</i>
95.844,51 €	38 ordainketa kopuru

HIRUHILEKOAN ORDAINTZEKO DAUDENAK	
<i>Ordaintzeko legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaintzeko legezko epetik kanpo</i>
340.163,20 €	25.355,23 €

Horreei buruzko datuak txosten horri erantsitako zerrendan agiri da.

Horrezaz gain, 2019ko hirugarren hiruhilekoari jagokozan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea hauxe izan da: 0,66egun.

Zinegotziak horren guztiorren jakinaren ganean geratu dira.

6.- KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEKO PLANA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Amets Jauregizar alkate andreak klima aldaketaren plana onartzeko dagozan arrazoiak azaldu dauz, hauxe esanez:

Udalbatzak 2019ko irailaren 26an larrialdi kimatikoari buruz hartu zuen erabagian klima-aldaketaren plana idatzi eta onartzeko konpromisoa onartu zuen, gaur egun bizi dogun aldaketa klimatikoari aurre egiteko hartu behar diran neurrien metodologia zehazteko.

Beraz, Plana idatzia dan ezkerre, informazio batzordean horren barri emon da. Orain, gure zeregina da plana onartu eta, ostean, Bakio Eraiki informazio batzordean kronogramea egin, zehazteko planean azaldutako neurriak noiz hartuko diran eta horreen jarraipena egiteko.

Amaitzeko, Udalaren Osoko Bilkura, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira 11), hauxe erabagi dau: **klima-aldaketara egokitzeko plana onartzea.**

7.- GARDENTASUN ARLOAN 2020AN EMON BEHARREKO URRATSAK ZEHAZTEN DAUZAN KRONOGRAMA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Horren ganean, Irati Abio alkateordeak, hauxe azaldu dau:

Bakioko Udalbatzak 2018ko uztailaren 26an egindako osoko bilkuran udal gobernuaren jardueraren gardentasunari buruzko txostena egiteko konpromisoa hartu zuen, arautegi honen arabera: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016ko legearen VI. Titulua.

Udal erabaki horren arabera, datuen irekitasunaren, gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen edo informazio inguruko auditoria bat egin behar da.

(Euskal Herriko Unibertsitatea) EHUri agindu jakon behar hori egitea, eta txostena 2019an aurkeztu eban.

Txosten horretan azaltzen diran udal gardentasunari buruzko adierazleak, 2020urteari jagokonez, beteteko asmoa dagoan kronogramea prestau da udal beharginakaz lankidetzan aritzeko, eta adierazle bakotzak arduradun bat izango dau. Urtarrilean eta zezeilean egingo litzatekez beharrak, eta gardentasunari buruzko ataria sortuko litzateke eta martxoan webgunean ipini eta, hortik aurrera, adierazlearen arduradunakaz beharrean aritu eta gardentasun ataria herriko webgunea gaurkotzen joan.

Begoña Abio zinegotziak, EAJ/PNV taldearen izenean, dino:

Ados gagoz, baina hauxe nahi dot esan: EAJ/PNV taldeak 2018an eskatu eban udalaren gardentasunaren ganeko auditoria egitea, ikusten genduelako herriko web gunean informazino falta nabaria egoala, eta hori be EHUK bere txostenean azaltzen da. Beraz, kronograma horregaz hemendik eta aurrera horrelako adierazle asko bete egingo dira; ganera, webgunean antolaketa hobetu egingo da, jendeak hobeto ulertu daian, eta, azken batean, ados gagoz kronogramaren edukiaz.

Amaitzeko, Udalaren Osoko Bilkura, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira 11), hauxe erabagi dau: **gardentasun arloan 2020an emon beharreko urratsak zehazten dauzan Kronograma onartzea.**

8.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Josu Garai zinegotziak, hauxe adierazo dau: jakin dogu Bakea eremuko jaubekaz datorren asteko 29an, goizeko 1:00etan batzarra egingo dala, eremu horri buruz kaleratu dan epaia azaltzeko, eta galdera da batzarra ia zergatik dan 1:00etan, ze ordu hori dala-eta kexa batzuk jaso doguz eta, jaube batzuk ezin diralako etorri.

Ametz Jauregizar alkate andreak hauxe dinotso:

Ordua zehaztea ez dala erreza izan, batzarrera udaleko aholkulari arkitektoa eta aholkulari jurudikoa joango diralako, eta jaubekaz ez eze, horren ordutegia be kontuan hartu beharra izan dogulako. Guk behintzat ez dogu kexarik hartu, eta, gainera, batzarra lehenbailehen egin behar da jaubeen artean ezinegona handia dagoalako

Dana dala, etorri ezin izango diranei beste egun baterako deituko jake.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoan ezkerro, ezta gai-zerrendatik kanpo be, alkate andreak batzar hau 20:10ean emondau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria